

Atariak bideak zabalduz

Josu Waliño*

Internet ezagutzen duenarentzat 'atari' deitutako web guneak eguneroko ogia dira. Yahoo, Excite, Telépolis edo hurbilagoko Kaixo eta antzeko guneak dira atari gisa ezagutzen direnak; Interneteko sarbide gisa erabiltzen ditugun horiek, alegia. Hauetako asko ordea, erabat berritzeko bidean dira eta atarien belaunaldi berria jaiotzen ari da.

Atari terminoa, duela urte bete inguru sartu zen bete-betean hizkuntza informatikoan. Ez dugu esango denboraldi honetan hitz honen esanahia aldatu denik, baina bai erabat berritu dela. Orain artean, Interneteko atariak Yahoo!-ren itxurako web guneak ziren, eta gaikako sailkapena, bilaketarako aukera, doaneko posta elektronikoa, informazio-zerbitzuak etab. eskaintzen zitzaizkion erabiltzaileari Internetera sartu orduko. Teknologiaren garapenarekin batera, (eta merkatuaren eta kompetentziaren hedapena ikusirik, noski), zerbitzu hauek aldatzen joan dira. Gune hauek interes berezia dute erabiltzaileak zerbitzu honetatik espero duen guztia eskaintzeko, itxura erakarria izatea alde batera utzi gabe.

Go Disney, go

Esandako honen adibide sortu diren atari berriak dira. Go Network adibidez (beta.go.com),

Disney eta Infoseek-en elkartzetik sortutako emaitza izan da. Gune hau oraindik probatan ari bada ere, erreferente garrantzitsuz jotzen dute adituek, bertan erabiltzaile arruntak bila dezakeen gehiena aurki dezakeela uste baita. Horrela, erabiltzaileak Internet-en igaroko duen denboraren zati handi bat, Disney-ren

gunetik atera gabe eman dezake. Bide berari jarraitu zaizkio Lycos (www.es.lycos.de), Yahoo! (www.yahoo.com) edo estatuan Telépolis (www.telepolis.com) eta antzeko beste atari batzuk. Bakoitzak aukera-multzo zabala eskaintzen du, baina beti ere erabiltzaile-mota jakin batentzat. Honen adibide izan daiteke Hues-

Pentium III eta K7 hurrengo prozesadoreak

Arrazoi komertzialak direla eta, Intel-ek garatu dituen azken prozesadoreen izena Pentium III izango da. Orain arte Katmai izenez ezagutzen ziren hauek, kalean ikusiko ditugu laster batean.



Intel-ek bere prozesadorea garatuko badu ere, lehiakideak ez zaizkio atzean geratu. Azkenaldian, Ciryx eta AMD enpresek merkatu handia jan diote prozesadoreen merkatuan Intel-en Celeron prozesadorearen prezio bereko baina maila hobeko prozesadoreak garatuz (AMDren K6a esate baterako).

Orain, AMD enpresa K7 prozesadorea garatzen hasi da, 1.000 MHz-eko abiadura izango duena. Zalantzarik gabe, informatika gero eta abiadura handiagoz doa.





ca-ko mendi-materialeko denda txiki batek zabaldu duen web orria (www.barrabes.com). Denbora gutxian Internet-eko atari bihurtu da, eta Microsoft, Intel, HP eta antzeko enpresek bultzata mundu-mailako mendizale guztien atari birtuala izatea nahi dute.

Ordenadorea linean konpondu

Atari berrien etorrera honek eskaintzen dizkigun abantailetan, McAfee konpainiak kaleratu duena da interesgarrienetarikoak zalantzarik gabe. Mac Afee On Line (www.mcafee.com), atari adimentsu deitzen duten horietakoa da, eta bertatik gure etxeko ordenadorearen egoera aztertu eta izan ditzakeen arazoak Internetetik konpon ditzakegu, PC-a baldin badugu, noski. Gune honen bidez, Internetetik gure ordenadoreko disko gogorra txekea dezakegu birus bila, eta baita aurkitutakoak garbitu ere. Gainera, birusak eta hauek sailhesteko era

Apple aurrera

Azken urtean konpainiak egindako estrategia-aldaketa dela eta, eta iMac-aren ezusteko salmenta-kopuruen ondorioz, badirudi Macintosh-en mundua berriro ere pizten ari dela. Horren adierazgarri dira aurrean kaleratu diren iMac modelo berriak (4 kolore aukeran) eta G3 berriak ere. Honez gain, iMac-a kaleratu zenetik, 1.300 programa inguru argitaratu dira Macintosh-erako, eta USB motako 100 gailutik gora.



Internet-en ere denda birtuala zabaldu du Apple-ek (www.apple.com/spainstore). Horrela norberaren neurrirako ordenadorea eros dezakegu, modemarekin edo gabe, CD ala DVD irakurgailua duela, etab. Web orriak unean bertan esango digu zein prezio duen aukeratu dugun konfigurazio horrek, eta erosiz gero etxera bidaliko digute bi asteren barruan.


Hori ez ezik, Apple-ek unibertsitateko ikasleentzako kanpaina hasi du mundu osoan. Helburua, ikasleek programa informatikoak garatzeko tresna aurreratuak erabili ahal izatea da, eta hauei Macintosh eta Internet-erako programa berriak sortzeko aukera emanez, etorkizunari begira egindako inbertsio garrantzitsua da zalantzarik gabe.

XUXEN II doan Interneten

Donostiako Informatika Fakultateko IXA taldeak garatutako Xuxen euskarazko zuzentzaile ortografikoaren bigarren bertsioa dagoenez eskuragarri dago eta oraingoan doan gainera. Euskaraz idatzitako testuen akats ortografikoak antzeman eta zuzentzen dituen tresna da Xuxen. Euskaltzaindiak 1998ko uda arte emandako arau guztiak barneraturik ditu gainera. Windows-eko Office 97rako baka-rik balio duen zuzentzaile hau, honako helbidetik karga daiteke doan: http://www.euskadi.net/euskara_hizt

Idatzi ahala akatsak antzemango ditu Xuxen-ek eta gorri azpimarratuko ditu. Kurtsorea oker dagoen hitzaren gainean jarrita, ondo dauden aukerak agertuko zaizkizu. Norberaren hiztegia ere elika daiteke; sarrerak gehitukoan, sarrera horien flexioak ere onartu egiten ditu. Xuxenek ez ditu akats sintaktikoak edo semantikoak antzematzen; hortaz, Ni dut edo hari eman du ontzat emango ditu.

Zuzentzaile hau EHUko Informatika Fakultateko IXA Taldeak egin du UZEI eta Hizkiarekin lankidetzan, Inxight enpresako teknologia erabilita.



ezberdinei buruzko informazioa ere ematen digu. Beste hainbat zerbitzu ere eskaintzen ditu, denda-birtuala (30.000 programa baino gehiago), doaneko posta elektronikoa, agenda, etab. Interneteko atarien kasua, igandetako egunkarien antzekoa da: guztiak nahi dute gure etxean

egon, eta horretarako galtzeko moduko gehigarri- eta informazio-kopurua eskaintzen digute. Azkenean zein erabili gure esku dago, egunkariekin bezala, eta gure asmoetara gehien hurbiltzen dena hartuko dugu.



* Elhuyar